



Enrique Maia eta Javier Esparza, Iruñeko udalbatetik irteten, Maia Nafarroako hiriburuko alkate izendatua izan berritan. IRANIKORTO/EFE

DESALDAKETA: LEHEN ITZULIA

PSNk Navarra Sumaren alkatetzak ahalbidetu ditu, koalizioak haren beharra zuen udal gehienetan; tartean, Iruñea. Txibitek esan du «hitza bete» dutela, baina 2007ko «abuztuko kolpea» udaletan ematea egotzi dio Geroa Baik. Ikuskizun dago zer arrasto utziko duen atzokoak foru gobernurako elkarrizketetan.

Jon O. Urain

Maiatzaren 26ko hauteskundeak panorama irekia azalera zuten Nafarroako udal askotan eta, batez ere, Nafarroako Parlamentuan. Navarra Sumak lortu zuen

parlamentari gehien, baina, gehiengo absolutua lortu ezinik, ikusteko dago zer gehiengo osa daitezkeen gobernuko lehendakaria aukeratzeko eta gobernua bera osatzeko. Horiek horrela, zailantza bat da nagusia: PSNk zer egingo duen; hautagaitzarik aurkeztuko duen, gehiengo absolutua edo soila osatzeko gai izango den, horretarako zeinek eta zertaz hitz egiteko prest dagoen,

eta, PSNren jokabidearen arabera, Geroa Baik, EH Bilduk, Ahal Dugu-k eta Ezkerrak nola jokatzen duten.

Testuinguru horretan, gobernuko lehendakariaren hautaketan gerta daitezkeen aurrekari bat izan daiteke atzo udalen osaketan eta alkateen inbestidura saioetan gertatutakoa. Ikuskizun zegoen PSN nola lerratzen zen bi blokeen artean –laukoa eta Nava-

rra Suma–, eta sozialistek mezu argia bidali zuten atzo: ez daude aldaketa babesteko. PSN beharrezko aldagaia ez zen ekuazioetan soilik eskuratu zuten laukoa osatzen duten alderdiek alkate-tza: Tafallan, Berriozarren, Antsoainen, Garesen, Zizur Nagusián, Altsasun... Horrez gain, PSNk Navarra Sumaren esku utzi zituen bestelako gehiengoak izan zitzaketen udalak, zinegotzi so-

zialistek beren alkategaiaren aldeko botoa emanda; horrela gertatu zen Iruñean, Eguesibarren, Lizarran, Barañainen eta Burlatan, esaterako; hiriburuan eta azken hiru kasuetan, EH Bilduk lor zezakeen alkatetza, eta Eguesibarren, Geroa Bairren kaltetan jardun zuen PSNk.

Eman ez, jaso bai

Sozialisten posizioaren beste adierazpideetako bat izan zen non eta nola lortu dituzten hainbat alkatetza. Vianan, Cortesen eta Andosillan, EH Bilduk babes-tuta lortu du aginte makila. Beste muturrean legoke Sartaguda: herri horretan, Navarra Sumaren botoak baliatu ditu Jose Antonio Egizabal alkate sozialistak lehen indarra (EH Bildu) gainditzeko. Azkenik, esanguratsua da Uhartengertatutakoa: zinegotzi bakarra izanik, PSNk herri plataforman baten eta Navarra Sumaren botoak jaso ditu, EH Bildu gainditu eta aginte makila eskuratzeko.

PSNk ohar batean eman zituen udalez udal izandako jarrerari buruzko esplikazioak. Nabarmendu zuen «aurrerabide akordioak ahalbidetu» dituela horiek «posible izan diren udal guztietan», alderdiaren tokiko taldeen «irizpidea» aintzat hartuta eta PSNko zuzendaritzak ezarritako ildoari jarraituta: «Hautagai sozialistek beren burua aurkeztu dute, akordiorik eta gehiengorik izan gabe, alkatetzarik ez emateko ez eskuinei, ezta [EH] Bilduri ere». Maria Txibite PSNko lehendakariak txio batean laburbildu zuen alderdiaren jokabidea: «Gure hitza bete dugu; boto bakar bat ere ez Navarra Sumari, ezta Bilduri ere, akordioak ahalbidetuz posible zen lekuetan».

Sozialisten jokamoldeaz oso bestelako iritzia zabaldu zuen Geroa Baik ohar batean. Ikusirik PSNk, beharrezkoaren herrietan, ez dituela ahalbidetu bestelako gehiengo batzuk Navarra Sumaren aurrean, Geroa Baik uste du PSNren jarrerak esan nahi duela «de facto ekainera aurreratzea abuztuko kolpe berri bat Nafarroako udal mapara». Geroa Baik txarretsi du PSNk «akordioak egiteari uko» egin diola, eta, are, kasu batzuetan «hitz egiteko» aukera ere baztertu duela.

Adibide batzuk aipatu ditu koalizioak: gogorarazi du Eguesibarren alkatetza lor zezakeena Geroa Bai zela, eta Sartagudan eta Uhartengertatutakoa, «ahultasunetik alkatetzak lortzea» helburu; «PSNk azalpen publikoak zor ditu, sozialistek eurek eskatzen

Udalen osaketa
Hego Euskal Herria

duten konfiantzaren edozein izpi apurru dutelako». Sare sozialean, kritikoa azaldu zen Uxue Barkos Geroa Bai ko lehendakariaga: «Koherentzia apurrik gabe, zaila da gutxieneko duintasuna iza-



«Hitza bete dugu; boto bakar bat ere ez Navarra Sumari, ezta Bilduri ere, akordioak ahalbidetuz posible zen lekuetan»

Maria Txibite
PSNko lehendakariaga



«Koherentzia apurrik gabe, gutxieneko duintasuna izatea zaila da [...]. Bide luzea dugu; jarraitzea dagokigu»


Uxue Barkos
Geroa Bai ko lehendakariaga

tea... Interes orokorraren alde lan egitearen bokazioa eta gizarte justu eta orekatu batekiko pasioa izatea baino ez da. Nafarroa kohe-sionatu bat. Antza, bide luzea dugu; beraz, bidean ibiltzen jarraitzea dagokigu».

Etzidamu, parlamentua

Asteazkenean egingo dute Nafarroako Parlamentua osatzeko bilkura. Ikuskizun dago udalen osaketak zer arrasto utziko duen alderdien arteko elkarriketetan. Legebiltzarreko presidentea aukeratu beharko dute saio horretan, eta horrek ere emango ditu datozen lau urteetarako aliantzen inguruko arrastoak. Mahaja osatuta, parlamentuko presidentek bilera sorta bat egin behar du alderdiekin, ikusteko zer hautagaik bil dezakeen babes gehien. Horren arabera, lehendakariaga bat proposatu beharko du, eta hautagai horrek gehiengo eskuratu beharko du: absolutua lehen bozketan, edo soila bigarrenetan.

Udaletako eta parlamentuko prozedura ezberdina da, ordea; PSNk atzoko jarrerari eusten badio, Txibitek hautagaia aurkeztuko luke, eta Geroa Bai, EH Bildu, Ahal Dugu eta Ezkerraren esku legoke hura babestea. Hiru hilean inork ez balu bilduko beharadina boto, bozak berriro egin beharko lirake.



- 121 ● EAJ
- 120 ● EH Bildu
- 34 ● PSE-EE / PSN
- 24 ● Navarra Suma
- 3 ● Geroa Bai
- 2 ● PP
- 189 ● Besteak

ITURRIA: BERRIA, GAINDEGIA

EAJk eta PSEk alkatetza lortu dute zenbakiak aukera eman dieten leku ia denetan. Araban, askotarikoagoak izan dira aliantzak; Bizkaian, EH Bilduk lagun izan ditu herri plataformak.

Gehiengoak maximizatzen

J. O. Urain

EAJk eta PSEk joan den astelehenean lortu zuten tokiko erakundeetarako aurreakordio bat, herrietako militante taldeei eta herrialdeetako zuzendaritzei ate bat zabalik utzita; horiei zegokien erabakitzea nola jokatu bi alderdiak lehen indarra izan ez ziren plazetan. Astean zehar joan dira zalantza batzuk argituz, baina atzoko udalbatzarrek egin dute behin betiko argazkia: EAJ-PSE hitzarmena zenbakiak ematen zuten ia udal guztietara hedatu da.

Izan ere, lehen indarra gainditu eta gehiengo absolutura heltzeko, elkarren beharra zuten Zigoitian (Araba), Sorraluzen, Lezon, Mendaron, Pasaian, Andoainean (Gipuzkoa), Abadiñon, Zaldibarren eta Alonsotegin (Bizkaia), besteak beste, eta guztietan egin dute hitzarmena; Pasaian eta Andoainean, PSE-EEk eskuratu du alka-

tetza, eta besteetan, EAJk. Datuek erakusten dute nolako nagusitasuna izango duten bi indarrek udaletan, batez ere EAJk: 132tan aginduko dute; 11tan sozialistek, eta 121etan jeltzaleek. Atzo, 11 alkatetza horiekin pozik agertu zen Idoia Mendia PSE-EEko idazkari nagusia, eta nabarmendu zuen «politika sozialak erakundeetara eramatea» dela sozialisten nahia. Bestela mintzatu da Juan Karlos Izagirre EH Bilduko Gipuzkoako ahalzungai nagusia: esan du EAJ-PSE itunak ez diela «herritarrei intereserik erantzuten».

Samaniego (Araba) izan da EAJ-PSE akordioaren salbuespen bakarra, Eduardo Pascual PSEko zinegotziari esker lortu baitu EH Bilduk alkatetza. PSEk zinegotzi akta itzultzeko eskatu dio, baina alderdiko iturriek azaldu dute ezin dutela haren aurka neurririk hartu, ez delako PSEko kide.

Samaniegokoa gorabehera, Araban zabalago dago joko zelaia, inbestidura saioetan azaleratuta-

ko aliantzek erakutsi dutenez. EAJk eta EH Bilduk sintonia handiagoa erakutsi dute; Guardian eta Bastidan, EH Bilduren babesak eraman du EAJ bi herrietako aginte makila hartzera, eta, Argantzonen, jeltzaleek babestu zuten EH Bilduko alkatagaiaren hautagaia. Askotariko akordioak egiteko erraztasun handiagoa erakutsi dute jeltzaleek, EH Bildurenez eta PSErenez gairi PPren botoak ere jasotzeko gai izan baita Kuartangon, EH Bilduri aurrea hartu eta alkatetza lortzeko.

Atzo errepikatu zen beste formulak bat izan zen EH Bildu-Elkarrekin Podemos batura. Bi indarrak bat etorrira, EH Bilduk alkatetza erdietsi zuen Ordizian, Errenterian (Gipuzkoa), Elorrian eta Durangon (Bizkaia).

EH Bildu, plataformekin

Bizkaian, agerikoa da EAJren nagusitasuna: 112 herritatik 73tan gobernatuko du, eta horietatik

52tan, gehiengo absolutuarekin. Hala ere, udal esanguratsuak galdu zituen atzo; Galdakao, Bakio, Arrigorriaga, Zaratamo eta Balmaseda, esaterako. Azken horretan, jeltzaleen esku egon da alkatetza azken lau hamarkadetan, baina independenteen plataformak batek eskuratu zuen atzo, EH Bilduk babestuta.

Hain justu, EH Bilduk hainbat herri plataformarekin izandako sintonia izan da inbestidura saioen ondorioetako bat, horiekin ados jarrita lortu baitu indar subiranistak aginte makila Bakion, Galdakaoan, Arrigorriagan eta Zaratamon. Orion (Gipuzkoa), lehen indarra izan zen EH Bildu, baina Orain Orio herri plataformaren abstentzioak ahalbidetu du Anuska Esnal alkate izatea. Gipuzkoan bertan, bestelakoa izan da egoera Deban: Gilen Garcia EH Bildukoak lortu du alkatetza, baina Debarren Ahotza plataformak ez dituelako jaso hiru zinegotzi jeltzaleen botoak.